



# XIII. LEA ARTIBAI RALLYE



2025ko maiatzaren 2 eta 3

EUSKADIKO RALLY TXAPELKETA

Barne Araudia



## **AURKIBIDEA**

<b>PROGRAMA-ORDUTEGIA</b>	<b>3. orria</b>
<b>ABISUEN TAULA OFIZIALA</b>	<b>4. orria</b>
<b>IDAZKARITZA IRAUNKORRA</b>	<b>4. orria</b>
<b>1. Artikulua- ANTOLAKUNTZA</b>	<b>4. orria</b>
<b>2. Artikulua- PUNTUAGARRITASUNA</b>	<b>5. orria</b>
<b>3. Artikulua - DESKRIBAPENA</b>	<b>6. orria</b>
<b>4. Artikulua- ONARTUTAKO IBILGAILUAK</b>	<b>9. orria</b>
<b>5. Artikulua- ASEGURUAK</b>	<b>9. orria</b>
<b>6. Artikulua- IZEN-EMATEAK</b>	<b>10. orria</b>
<b>7. Artikulua- IZEN-EMATE ESKUBIDEAK - ESKAERAK</b>	<b>10. orria</b>
<b>8. Artikulua- PUBLIZITATEA</b>	<b>11. orria</b>
<b>9. Artikulua- EGIAZTAPEN ADMINISTRATIBOAK ETA TEKNIKOAK</b>	<b>11. orria</b>
<b>10. Artikulua- ERREKONozIMENDUAK</b>	<b>12. orria</b>
<b>11. Artikulua- PARKE ITXIA</b>	<b>13. orria</b>
<b>12. Artikulua- ASISTENTZIAK</b>	<b>13. orria</b>
<b>13. Artikulua- GPS</b>	<b>13. orria</b>
<b>14. Artikulua- SARIAK ETA GARAUKURRAK</b>	<b>13. orria</b>
<b>I ERANSKINA – IBILBIDEA-ORDUTEGIAK</b>	<b>15.orria</b>
<b>II ERANSKINA – ERASKINA PLANOAK</b>	<b>17.orria</b>
<b>III ERANSKINA – SEGURTASUNA ETAGPS - FUNTZIONAMENDUA</b>	<b>19. orria</b>

BARNE ARAUDIA

**PROGRAMA - ORDUTEGIA**

DATA	ORDUA	EKINTZA	TOKIA
03/04/2025	20:00	Araudia publikazioa eta Izen-emate irekiera	Idazkaritza iraunkorra
25/04/2025	20:00	Izen-emate itxiera	
27/04/2025 01/05/2025	08:30-09:30	Errekonozimenduak (Roadbook banaketa)	Asistentzia Gunea
30/04/2025	22:00	Parte-hartzaileen zerrenda publikatzea	Idazkaritza iraunkorra

02/05/2025	Egiaztapen administratiboak		BERRIATUA (Maparen arabera)
	14:45-17:30		
	Egiaztapen teknikoak		
	INSKRIZIOAN AUKERATUTAKO ORDUTEGIA		
	Ondoren	Parke itxia	BERRIATUA
	18:00	Irteera baimendutako ibilgailuen zerrendaren aurkezpena	Idazkaritza iraunkorra
	18:00	Briefing	BERRIATUA
	18:25	Irteera parke itxitik – irteera ekitaldira	
	18:55	Irteera ekitaldia	MARKINA XEMEIN
	19:00	Lehen parte hartzailearen irteera ETAPA 1	Markina Xemein
23:00	Lehen parte hartzailea parke itxira iristea ETAPA 1		

03/05/2025	01:00	Irteera ordena publikatzea ETAPA 2	Markina Xemein (Parke itxia)
	08:00	Lehen parte hartzailearen irteera ETAPA 2	Markina Xemein
	19:43	Lehen parte hartzailea parke itxira iristea ETAPA 2	Etxebarria (Erbera)
	21:00	Emaitzak publikatzea	Idazkaritza iraunkorra
	21:15	Sari eta garaikur banaketa	Etxebarria
	Ondoren	Parke itxiaren irekiera	

## **OHAR OFIZIALEN TAULA**

- Apirilak 2tik, maiatzaren 2ra Idazkaritza Iraunkorrean.
- Maiatzaren 2tik, rallyaren amaiera arte Bulego Iraunkorrean.

## **RALLYKO IDAZKARITZA IRAUNKORRA**

Apirilaren 2tik maiatzaren 2ra, 18:00-21:00ak bitartean:

Antolatzailea:	Etxebarriko Kastinparro Racing
Helbidea:	Ibai Ondo kalea 2, 3 Esk.
Herria:	48277 Etxebarria
Telefonoa:	608 846 192(KPR), 615726192 (Garikoitz), 615764781 (Oier)
E-mail helbidea:	<a href="mailto:kastinparro.racing@gmail.com">kastinparro.racing@gmail.com</a>
Web:	<a href="http://www.eaf-fva.net">www.eaf-fva.net</a> <a href="http://www.fotomotor.es">www.fotomotor.es</a>

## **RALLYSPRINTEKO BULEGO IRAUKORRA**

Rallysprinteko Bulego Iraunkorra, ekainaren 29tik aurrera, probaren programa-ordutegiari egokituta, honako tokian izango da:

Kokapena:	Etxebarriako Udaletxea
Helbidea:	Peñanekua Plaza, 1
Herria:	Etxebarria (Bizkaia), 48277
Telefonoa:	608 846 192(KPR), 615764781 (Oier)
Web:	<a href="http://www.eaf-fva.net">www.eaf-fva.net</a> <a href="http://www.fotomotor.es">www.fotomotor.es</a>

Ordutegi-programako ekintzaren bat salbuetsita, Bulego Iraukorraren ordutegia honakoa izango da:

Maiatzak 2 eta 3: 08:00etatik 22:00etara.

Parte hartzaileek Idazkaritza Iraunkorrekarekin kontaktuan egon behar dute, baita probaren webarekin ere, puntualki informazio buletinak publikatu daitezkeelako, eta hauen berri izateko betebeharra dutelako.

## **1. Artikulua ANTOLAKUNTZA**

Baliozko araudietatik, lehentasunaren arabera ondoko hauek erabiliko dira

- A. Euskadiko Txapelketen, Kopa, Sari eta Challengerren preskripzio amankomunak.
- B. Euskadiko Rallye Txapelketako Kirol Araudia.
- C. Euskadiko Rallye Txapelketako Araudi Teknikoa.
- D. Probaren Barne Araudia.

C.D.I.a izango da lehentasunez aplikatuko dena, prozedimendu, erreklamazio eta apelazio egoeretan.

### 1.1. Definizioa:

Etxebarriko Kastinparro Racing klubak, XIII. Lea Artibai Rallye antolatuko du, lasterketa 2025ko maiatzaren 2 eta 3an burutuko delarik.

EAF-FVA bisatu zbkia:                      Data:

### 1.2. Antolakuntza batzordea:

<b>Lehendakaria:</b>	Oier Gonzalez
<b>Batzordekideak:</b>	Zorion Antxustegi
	Garikoitz Lopez

### 1.3. Rallyko ofizialak

#### KIROL KOMISARIOAK:

Lehendakaria:	D.	Lic. CD- -EUS
	D.	Lic. CD- -EUS
	D.	Lic. CD- -EUS

LASTERKETAKO ZUZENDARIA:		
	D.OIER GONZALEZ	Lic. DC- -EUS

LASTERKETAKO IDAZKARIA:		
	D.	Lic. SC- -EUS

EAF-FVAko SEGURTASUN ORDEZKARIA:		
	D.	Lic. DC- -EUS

KOMISARIO TEKNIKOAK:		
Arduraduna:	D.	Lic. OC- -EUS
	D.	Lic. OC- -EUS
	D.	Lic. OC- -EUS

KRONOMETRAJE ARDURADUNA:		
	D.	Lic. OB--EUS

## 2. Artikulua PUNTUAGARRITASUNA

XIII. Lea Artibai Rallya ondorengo Txapelketa eta Sarietarako puntuagarria da:

- Euskadiko Rally Pilotu Txapelketa.
- Euskadiko Rally Formula Libre Saria.
- Euskadiko Rally Kopilotu Saria.
- Euskadiko Rallyetako Pilotu Junior Saria.
  
- Bizkaiako Rally Pilotu Txapelketa
- Bizkaiako Rallyetako Pilotu Junio Saria.
- Bizkaiako Rallyetako Kopilotu Junio Saria.
- Bizkaiako Rallyetako Formula Libre Saria.
  
- Gipuzkoako Rally Pilotu Txapelketa.
- Gipuzkoako Rallyetako Junior Pilotu Saria.

## BARNE ARAUDIA

- Gipuzkoako Rallyetako Junior Kopilotu Saria.
- Gipuzkoako Rallyetako Formula Libre Saria.
  
- PIRELLI Kopa Euskadi, Naparroa, Errioxa 2025
- 206 KOPA.
- Open del Norte de Rallys Auto Hebdo Sport
- Trofeo Históricos H1
- Lea Artibai saria.

### 3. Artikulua DESKRIBAPENA

- 3.1. Ibilbidearen distantzia osoa: 344,29 km  
3.2. E.I. kopurua 12  
3.3. E.I.en distantzia osoa.: 100,40 km  
3.4. Etapa kopurua: 2  
3.5. Ibilbidearen deskribapena

### 4. Artikulua ONARTUTAKO IBILGAILUAK

4.1. Asfalto gaineko Rallyen Araudi Teknikoan deskribatutako ibilgailuak, Rallysprintean parte hartu eta puntuagarri izateko onartuak izango dira:

2024ko EUSKADIKO RALLYE TXAPELKETAKO MAILAK			
MAILA	Gr.N	Gr.A - Gr.R – R(FIA) – Ra	F2000 - A2 – E2 - Historikoak
1	2.000 arte	1.600 arte –R1A-R1B	F1 (1.150arte) - A2 (1.4arte)
2	2.000tik 2.500era	2.000 arte – R2B-Ra3B	F2(1.150dik gora 1.400arte) - A2 (1.4tik 1.6ra)
3	2.500dik gora	2.000tik 2.500era- R2C-Ra3C-Ra5	
4		2.500dik 2.800era - Kit Car 1.600-s1600 – R3C – S1600 – R3T – Ra3D-Ra4B	F3 (1.4tik gora 1.6arte) – A2 (1.4tik 2.0arteko kopak)
5	2.500dik gora (4x4)	2.800dik gora – Ra4C – GrB	F4 (1.6tik gora 2.0arte) – A2 (2.0tik 3.0arteko kopak)- E2
6	S2000 – N Plus	Kit Car 2.000,WRC,WRC 2, GT, S2000/WRC, R4, R5, N1, N5, Ra1 – Ra2	F5 (2.0tik gora 2.5 arte) - A2 (3.000tik gorako kopak)
9			H (Historikoa – Pre 81)
10	FORMULA LIBRE RALLYSPRINTA		

#### 4.2. Legend

- Grupo 2 y 5ak (erreplikak zein originalak). Garaiko autoaren prestakuntza eta dekorazio berbera.
- Grupo 3 y 4ak (originalak, erreplikak eta Stradaleak).
- Grupo Bak (originalak, erreplikak eta Stradaleak).

## BARNE ARAUDIA

- Grupo Ak edo Kit Car ofizial-ohiak edo ofizial-ohien erreplikak, 2000 urtearen aurretik parte hartu bazuten. Garaiko autoaren prestakuntza eta dekorazio berbera.
- 2000 urtearen aurretik parte hartu zuten WRC autoak.
- Antolakuntzaren irizpideen baitan, bestelako autoak, betiere EAF-FVAren komisio teknikoaren onespenezekin, irizpideak bateratzeko helburuz, autoaren aurre-albo irudia bidali beharko delarik.

**4.2.1.** Egiatzapenean, autoa egoera perfektuan aurkeztu beharko da, martxan, bai arlo mekanikoari dagokionez, bai eta karrozeriari dagokionez ere.

## 5. Artikulua ASEGURUAK

**5.1.** Aseguruaren inguruko datu guztiak. EAF-FVAren 2025ko Txapelketa, Kopa eta Sarien amankomuneko preskripzioen VII. atalean ageri dira.

## 6. Artikulua IZEN-EMATEAK

**6.1.** Izen emate eskaera egiteko data eta egun muga:

Izen emateko eskaeren muga 2025ko apirilaren 25ean, 20:00etan amaituko da. Eskaera Euskadiko Automobilismo Federazioaren web orriaren bitartez soilik burutuko da [www.eaf-fva.net](http://www.eaf-fva.net) orrian, XIII. Lea Artibai rallyaren sailaren barruan, online inskripzioak atalean.

**6.2.** Parte hartzaile kopuru maximoa 70ean finkatuko da. Zifra hori gaindituko balitz, antolakuntzaren irizpide propioen arabera burutuko da aukeraketa. Baldintza garrantzitsuena ordainketa eginda izatea da.

**6.3.** Antolakuntza komiteak eskubidea izango du, izen emate bati uko egiteko, C.D.Iaren 3.14 artikuluan onartutakoari lotuta.

## 7. Artikulua IZEN-EMATE ESKUBIDEAK - ESKAERAK

**7.1.** Izen-emate eskubideak:

### ABIADURA

**7.1.1.** Antolakuntzak proposatutako publizitatearekin: **290 €.**

**7.1.2.** Antolakuntzak proposatutako publizitatea gabe: **580 €**

### LEGEND

**7.1.3.** Antolakuntzak proposatutako publizitatearekin: **190 €.**

**7.1.4.** Antolakuntzak proposatutako publizitatea gabe: **380 €**

Izen ematearen kopuru ekonomikoa, banku txartel edo bizum bidez ordaindu beharko da inskizioa egiterakoan.

**7.2.** Izen emate eskaerak antolakuntzaren eskuetan egon beharko dira, behar bezala beteta eta ordainketak BURUTUTA.

**7.3.** Pilotuaren edo taldearen betebeharra izango da, izen ematearen itxiera epearen aurretik antolakuntzaren esku jartzea, [www.eaf-fva.com](http://www.eaf-fva.com) web orrialdean behar bezala Beteta eta sinatuta, baita dokumentuen kopia eta inskripzio eskubideen ordainketaren agirira ere.

7.4. Baldintza hau betetzen ez duen izen emate eskaerari, arrazoirik eman gabe uko egin diezaioke antolakuntzak.

7.5. Inskripzio eskubideak osotasunean itzuliak izango dira ondoko kasuetan:

a) Onartuak izan ez diren izen emate eskaerak.

b) Lasterketa aurrera ateratzen ez den kasuan.

7.6. Antolakuntzak, behar bezala azaldutako ezinbesteko kausak tarteko lasterketa hasierara agertu ezin den taldeari, izen emate eskubideen %85a itzuli diezaioke.

7.7. Izena eman duen parte hartzaile edo taldea, lasterketara ez bada agertzen, kirol komisarioen erabakipean zigortua izango da, beti ere, ezinbesteko kasuetan izan ezik edo 24 ordu aurretiaz idatziz abisatu ezean.

## 8. Artikulua PUBLIZITATEA

8.1. Antolakuntzaren publizitatea onartzen duten parte hartzaileek, honako espazioak gorde beharko dituzte

**EAFVA**  
Euzko Ardatz Federazioa  
Federación Vasca de Automovilismo

**PUBLICIDAD Y DORSALES CAMPEONATO VASCO DE RALLYES**

**CRISTALES LATERALES TRASEROS**  
DOS JUEGOS DE NUMEROS LATERALES DE 20 CM DE ALTURA Y TRAZO DE 25 MM. SE COLOCARAN DELANTE O ENCIMA DE LOS NOMBRES DE PILOTO Y COPILOTO

**CRISTAL TRASERO**  
UN NUMERO DE 14 CM DE ALTURA. TENDRA UNA SUPERFICIE MAXIMA DE 25 CM<sup>2</sup> Y SE SITUARA EN LAPARTE SUPERIOR DERECHA

**8 cm**  
**28 cm**  
**PEGATINAS RAC VASCO NAVARRO EN PARACHOQUES TRASERO**

**8 cm**  
**36,5 cm**  
**PEGATINAS RAC VASCO NAVARRO 100 AÑOS EN PARACHOQUES DELANTERO**

**19 cm**  
**59 cm**  
**DORSAL CON PUBLICIDAD OBLIGATORIA (PUERTAS DELANTERAS)**  
EL RECUADRO DONDE VAN LOS NUMEROS DE COMPETICIÓN, SERA DE UNAS DIMENSIONES DE 19 X 19 CM. LOS NUMEROS TENDRAN UNAS DIMENSIONES DE 16,5 POR 7,5 CM DE ANCHURA, SIENDO LA ANCHURA DEL TRAZO DE 3 CM. EL RECUADRO DONDE VA LA PUBLICIDAD OBLIGATORIA SERA DE 19 CM DE ALTO POR 400CM DE LARGO

**OPEN PIRELLI NORTE 2024**  
**PIRELLI 1150**  
**PARASOL PIRELLI**  
**PIRELLI**  
4 ADHESIVOS DE PIRELLI EN LOS DOS ANGULOS SUPERIORES DEL PARACHOQUES DELANTERO Y POSTERIOR

**INRAO: KUMHO TYRES**  
**206 KOPA**  
**206 KOPA**  
Publicidad de KUMHO TYRES. Deberá cubrir en la parte superior del cristal delantero, desde el lado izquierdo hasta el lado derecho.  
Debajo de cada espacio reservado se deberá llevar una pegatina con el logo oficial de la 206 KOPA.  
**206 KOPA**  
**8 cm**  
**36,5 cm**  
Obligatorio llevar la pegatina RACVN en la parte frontal derecha e izquierda de los parachoques delantero y trasero

**OPEN DEL NORTE DE RALLYES DE ASFALTO AUTO HEBDO SPORT**  
**AUTO HEBDO SPORT**  
Obligatorio llevar pegatina de Auto Heβδο Sport en las aletas delanteras

## 9. Artikulua EGIAZTAPEN ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOAK

9.1. Derrigorrezkoa izango da egiaztapen administratiboetan ondoko dokumentu originalak aurkeztea:



## BARNE ARAUDIA

- A. Ibilgailuaren dokumentazioa eta IATA indarrean.
- B. Lehiakidearen lizentzia.
- C. Parte hartzaileen lizentziak.
- D. Pilotuaren gidabaimena.

Parte hartuko duten auto guztiek eduki eta aurkeztu beharko dute aurreko atala.

**Ekintzako edozein momentutan, lasterketako zuzendariak dokumentazioa aurkeztea eska dezake, hauek egiaztatzeko. Artikulu hau ez betetzeak berehalako deskalifikazioa eragin dezake.**

**9.2.** Taldeak autoaren homologazio fitxa aurkeztu beharko du egiaztapen teknikoetan.

**9.3.** Suaren aurkako arropa, Hans eta kaskoaren egiaztapena Erlojupeko Ibilbidearen irteerako OKean (ordutegi kontrola) burutuko da. Kirolarearentzako segurtasun araudia ez betetzea taldearen deskalifikazioarekin zigortuko da.

**9.4.** Izen ematea egiten den momentuan, partehartzaileak momentu horretan libre dauden orduetako bat aukeratu beharko du egiaztapen teknikoak burutzeko.

**9.5. Egiaztapen teknikoetarako ordutegi kontrola jarriko da.** Parte hartzaile bakoitzak libre dagoen ordutegia aukeratu du inskripzioa egiterakoan. Ordutegia errespetatzea derrigorrezkoa da. Ordutegia ez bada errespetatzen 30 euroko isuna jarriko da. Isuna jakinarazi eta 48 ordu barruan ordaindu beharko da. Isunaren ordainketarekin atzerapenak bertan bera geratzea dauka, isuna ordaindu arte behintzat. Isuna hurrengo bideetatik ordaindu beharko da.

- Lasterketak diraun bitartean: Kirol komisarioak
- Lasterketa bukatu ostean bada EAF-FVA ri ordaindu beharko zaio transferentzi bidez.

## 10. Artikulua ERREKONozIMENDUAK

**10.1** Taldeek ibilbide neurtua apirilaren 27 edo maiatzaren 1ean soilik errekonozitu ahalko dute.

EGUNA	DATA	EKINTZA	IBILBIDEA	ORDUTEGIA
Igandea	25-04-27	Road-Book ematea	Asistentzia Gunea	08:30etik 9:30era
		Errekonozimenduak	3. Artikulua	09:00etik 20:00era
Osteguna	25-05-01	Road-Book ematea	Asistentzia Gunea	08:30etik 9:30era
		Errekonozimenduak	3. Artikulua	09:00etik 20:00era

**Parte hartzaileek errekonozimenduetarako eguna aukeratu behar dute derrigor, izena ematen dutenean. Gainera, dokumentu batez identifikatuta joan behar dira, gidariaren lizentzia zenbakiarekin. Aurreko eta atzeko kristaletan joan behar du.**

### 17.1.4. Art Rallyetarako kirol araudia

**GARRANTZITSUA: Aukeratutako egunean bakarrik errekonozidu ahalko da.**

**10.2.** Derrigorrez bete beharrekoak izango dira:

- a) Erlojupeko ibilbidearen aurkako norantzan gidatzea debekatuta dago.
- b) Errekonozimenduetan zehar, talde parte hartzaileak zorrotz bete beharko ditu Trafikoak indarrean dituen arauak.

## BARNE ARAUDIA

- c) Lasterketako autoarekin errekonozimenduak burutzea debekatuta dago.
- d) Errekonozimenduetan ibilitako autoak seriekoak izan beharko dira.
- e) Errekonozimenduetan gehienez ere 50km/orduko abiadura hartu ahalko da.

**10.3** Errekonozimenduetako autoek gidariaren lizentzia zenbakia eraman beharko dute aurreko eta atzeko kristaletan, 15cm-ko tamainan eta laranja florestente kolorean. Beste komunitate batzuetako gidariek gidariari lizentziaren atzean komunitateko letrak eraman beharko dituzte. (Adib. 99CT, 99AS...) Hau betetzen ez duenari 3 minutuko isuna jarriko zaio lehen aldian eta, bigarrenean, ezingo du parte hartu. Taldearen ardura da arau hau betetzea.

**10.4.** 2025eko Rally Txapelketako arautegiaren **6. Artikulua** ere derrigorrez bete beharko da.

**ERREKONOZIMENDUEI LOTUTAKO ARAUTEGIA EZ BETETZEA, 2025eko EUSKADIKO RALLY TXAPELKETAKO ARAUTEGIAREN 6 ARTIKULUAREN ARABERA ZIGORTUA IZANGO DA.**

### 11. Artikulua PARKE ITXIA

**11.1.** Rallyaren lehen etapa hasi aurretik, parte hartzaileak Berriatuan bilduko dira.

- Parte hartzaileek parke itxian sartu beharko dituzte beraien autoak egiaztapen teknikoak burutu ondoren eta 18:00 aurretik.

**11.2.** Lehen etapa amaitzen denetik bigarren etapa hasi bitartean, auto denak Merzedeko elizaren aurrean bilduko dira parke itxian (MARKINA XEMEIN).

**11.3.** Proba amaitzen dutenetik kirol komisarioen elkargoak parke itxia ireki arte autoak bertan egon beharko dira, Altzibar auzoan (ETXEBARRIA).

### 12. Artikulua ASISTENTZIA

**12.1.** Asistentzia gunea Galartza Poligonoan kokatuko da, Eika kooperatibaren ondoan eta partzeletan dorsalen zenbakiak jarriko dira. Asistentzia beste parte hartzaile batzuekin konpartitzeko errekonozimendu egunean edo email bidez adierazi beharko da.

**12.2.** Debekatuta dago asistentzia eremutik kanpo auto parte hartzaileari asistentzia ematea.

**12.3.** Asistentzia beste parte hartzaile batzuekin konpartitzeko errekonozimendu egunean edo email bidez jakinarazi beharko da, [Kastinparro.racing@gmail.com](mailto:Kastinparro.racing@gmail.com) helbidera parte hartzaileen izenak bidaliz eta beti ere **apirilaren 27** orduko.

**12.4.** Asistentzia ezingo jarri maiatzaren 2 ko arratsaldeko 16:00 aurretik.

**12.5.** Asistentzian parte hartzaileko auto bakarra sartu ahalko da, beti ere horretarako baimentzen duen papelarekin.

### 13. GPS artikulua

GPS gailua egiaztapen administrazioetan emango zaio parte hartzaile bakoitzari eta rally bukaerako parke itxiko sarreran jaso. Arrazoi desberdinak tarteko Rallya aurrez abandonatzen duen parte hartzaileak lasterketaren zuzendaritzan entregatu beharko du.

Derrigorrezkoa da parte hartzen duten auto guztietan antolakuntzak emandako GPS gailua erabiltzea jarraipen eta kontrolerako, beti ere GPS sistemaren enpresak emandako instrukzioei jarraituz. Parte hartzailearen ardura izango da GPS gailua uneoro martxan edukitzea eta arazoren bat izanez gero

lasterketaren zuzendaritza jakinarazi beharko dio berehala.

GPS emandako informazioa kirol komisarioek erabili ahalko dute sansioak jartzeko.

Parte hartzaileen ardura da GPSa araudi honen III. eranskinak jartzen duen moduan erabiltzea.


## 14. Artikulua SARIAK ETA GARAIKURRAK

14.1. Banatuko diren sari eta garaikurrak ondokoak izango dira:

### Scratch Sariak:

- 1.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra
- 2.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra
- 3.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra

### Mailakako Sariak (1-9)

- 1.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra +  opari txekoa

### Formula Libre Saria (10. klasea)

- 1.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra

### Euskal Pilotu eta kopilotu Junior Saria

- 1.- Pilotu garaikurra
- 1.- Kopilotu garaikurra

### H1 Klase Sariak (Historikoak)

- 1.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra

### Lea Artibai Saria (Eskualdeko lehena)

- 1.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra

### 206 Kopa Sariak

- 1 - 500 €
- 2- 350 €
- 3- 200 €
- 4- 150 €
- 5- 100 €

### Open Pirelli Norte 2025

Open Pirelli Norte 2025 eko araudiaren, 4 artikuluan jartzen duenaren arabera.

- 1.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra
- 2.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra
- 3.- Pilotu eta Kopilotuaren garaikurra

14.2. Sari banaketa Etxebarriko frontoian burutuko da, gaueko 21:15ean.


Etxebarrian, 2025eko martxoaren 12an.

## II. ERASKINA MAPAK.

### MAPAK EGIAZTAPENAK



### MARKINA XEMEIN IRTEERA EKITALDIA ETA PARKE ITXIA 1.EGUNA






**ETXEBARRIA ASISTENTZIA+AUTOEN BILGUNEA+IDAZKARITZA IRAUNKORRA**



**LEKEITIOKO AUTOEN BILGUNEA GOIZEAN**



**MARKINAKO AUTOEN BILGUNEA EGUERDIAN**



**III. ERASKINA PARTE HARTZAILEEN SEGURTASUNA ETA GPS FUNTZIONAMENDUA.**

Parte hartuko duen ibilgailu bakoitzak bi triangelu gorri islatzaile eraman beharko ditu; erlojupeko ibilbidean zehar autoa geldituko balitz, gutxienez horietako bat kokatu beharko du taldeko kideetako batek, ikusteko erraza den modu batean, gutxienez autoa baino 50metro lehenago, atzetik datozen autoak abisatzeko helburuarekin. Arau hau ikusten ez duen taldeei, Kirol Komisarioek isun ekonomikoa ezarriko diete.



Laguntza medikua behar ez duten zauriturik eragin ez dituen istripuetan, erakutsi berehala eta argi kartel hau atzetik datozen 3 taldeei. Taldeak autoa uzten badu, ondorengoek erraz ikusteko moduan jarrita utzi beharko dute “OK” txartela.




Aldiz, laguntza medikoa berehala behar denean, “SOS” txartela erakutsi beharko da, posible balitz, bai atzetik datozen gutxienez 2 autoei eta baita, larrialdian parte hartu dezaken edozein autori ere.



Antolakuntzak talde bakoitzari Lasterketako Zuzendaritzako Larrialdietako telefonoarekin bi pegatina emango dizkio, lasterketan zehar horietako bat auto barruan eta bestea kanpoan, ikusteko moduko toki batean jarri beharko direlarik

Telefono zenbaki hori benetazko larrialdiak artatzeko izango da eta parte hartzaileek, posible den heinean, lasterketa utziko dutela abisatzeko, atentzio medikuaren beharrak eskatzeko, autoaren erreskatea kudeatzeko edota Lasterketako Zuzendariak beraien egoeraren berri izateko egin ditzake deiak jasotzeko erabiliko da.

## GPSa – FUNTZIONAMENDUA.



### SOS JAKINARAZPENA:

Berehalako arreta medikuaren eskaeraren aurrean edo beste parte hartzailearen baten ibilgailuak errepidea guztiz oztopatzen badu.

Sakatu botoi gorria eta berdea aldi berean 2 segunduz.

### • MATXURA JAKINARAZPENA:





Ibilgailua matxuratuta dagoela eta lasterketan jarraitzea ezinezkoa duenean, baina errepidea guztiz oztopatzen ez duenean.

Sakatu botoi gorria 2 segunduz

### • DENA ONGI DAGOELAREN BAIEZTAPENA:

Lasterketaren zuzendaritzak parte-hartzaileen egoerari buruzko informazioa eskatzen badu, honakoa erantzun dezakete:

S.O.S / Matxura edo dena ondo dago

-  Dena ongi dagoela jakinarazteko
-  +  S.O.S deia jakinarazteko
-  Matxura jakinarazteko

### • BANDERA GORRIA/ RED FLAG

Pantailak RF testua (bandera gorria) erakusten du LED pantaila gorri osoarekin txandakatuz.